


Experientziak



Bilboko HABE Euskaltegiko kultur astea

Ondoko lerroetan saiatuko naiz Bilboko HABE Euskaltegian aurrera daramatzagun ekintza batzu azaltzen, eta hori egiteko komenigarri da asmo nagusiak zeintzu ziren aurretik adieraztea.

Irakasle batzuk (3. mailakoak) planteatu zuten eguneroko monotonia puskatzeko eta ikasleek kontzientzia har zezaten (zenbat ikasten duten, programan agertzen diren edukiak zergatik ikasi behar zituzten, egindako aurrerakadak e.a. jakiteko) beraiek interesgarri jotzen zituzten arazoak euskaraz bilatzeko eta gauzatzeko aukera eman behar zitzaizela. Hasieran pentsatu zen baita ere unitate didaktikoaren barruan (3 talde, 3. maila), eta egunero hiru taldeetan dauden eskola desberdinak kontutan harturik, aukera ematea ikasleei zein eskoletara joan nahi zuten hauta zezaten. Adibidez 2. ikastaldian (9,30etan) eta berrikusketa egitean aditza lantzea interesatzen bazitzaion eta ez erlatibo egitura (gauza biak egun horretarako programan sartuta egonez gero), aditza ematen zen ikasgelara joateko aukera izan zezala. Honek arazo batzu sortzen zituen, noski, batez ere programakuntza aldetik eta une konkretu batetan ikasgelan egon zitekeen ikasle kopuru aldetik. Kontua da, honegatik edo horregatik, bigarren asmo hau ez dela mamitu, baina lehen asmoaren ondorioz hamabostaldi kultural bat antolatzen ari direla ikasleak.

Ikasleei lan batzu proposatu zitzaizkien eta emandakoak eta beraiek sortutakoak bateratu. Bost talde hauek agertu dira: Aldizkariarena, Antzerkiarena, Video pelikuletako gidoi-egileena, diapositiba-muntaiarena eta dantza-taldea.

Ikasle bakoitzak gehien interesatzen zitzaion ekintzaren taldean izena eman zuen eta lanean hasi ziren; horretarako eguneroko ikastaldi bat (ordu ta laurden) okupatzen dute. Ikasle gehienek eman zuten izena, hala ere ezer aukeratu ez zutenei (oso portzentaia txikia) ariketak egiteko eta liburuak eta aldizkariak irakurtzeko eta eztabaidatzeko eman zitzaizkien, honela inor ez da geratzen ezer egin gabe.

Hau bukatuz gero beren lanak azalduko dizkiete beste unitateetako ikasleei, hau da Euskaltegiko ikasle guztiei, aldizkariak aurkeztuz antzerkia antzeztuz, etab. Ekintza hauek burutzeko 8 egun beharko dituztela uste dugu eta dagoeneko 3 daramatzate.

Dena den, asmo nagusia ez da hori hemen bukatzea, baizik eta gero ere jarraitzea, bai ikasle bezala Euskaltegiaren barruan (lehenengo ekintza gustatu ez bazae beste talde desberdin batzu antolatuz), eta baita Euskaltegitik kanpoko beren bizitzan ere.

Argi dago oraindik ondorioz ez dugula atera bukatu ez dutelako. Baina daramaten dinamika, ikusten den giroa eta beren gustuko gauzetan euskara erabiltzen dutela ikustea azpimarratzekoa da. Hala ere kontutan hartu behar da honelako gauzak, gure eritziz, nahiko aurreratuta dauden unitateetan bakarrik ezar daitezkeela, bestela erdarara jotzeko arriskua handia da, zeren eta, nahiz irakas-

leak lagundu eta haiekin lan egin, ezin daiteke guztiekin beti egon. Horregatik gomendatzen da batez ere 3. mailatik gora erabiltzea.

Laster, ondorioak ikusi eta aztertuz gero, eritzi sakonago bat edukiko dugu; momentuz ekintzak gogoz hartu dituztela eta hizkuntza modu askeago batez erabiltzen dutela aurreratu ahal dugu, eta hau, berez, pozzgarri da guztientzat.

Karlos Azkuenaga

Irakurgaiak lantzeko baliabide bat

Bi dira gure klaseetan erabil ditzakegun bideak experimentaziorako metodoa aukeratzeko. Metodo «standard» baten atxikimena izango litzateke baina, eta joera eklektikoaren hautapena bestea. Lehenengoak ihardute esparru mugatu batetara garamatza eta bertan markatzen diren jarraibideak itsumustuan bete behar ditugu baldin eta metodo horren efektibitatea zehatz eta mehatz neurtu nahi badugu. Bigarrena ordea konplexuagoa da lehenengoa baino, non konposatu kimiko baten antzera bere efektibitatea, bera osatzen duten elementuetan ezezik elementu horiek bateratzean erabiltzen diren portzentaieetan ere bai bait datza.

Joera eklektikoa amaierarik gabeko experimentazio-leku bilakatzen zaigu; metodo «standard»a aitzitik bizitza laburragokoa da.

Honelako metodo baten sorrerak beste baten zokoratzea dakar berekin. Joera eklektikoan murgilduta gaudenez, berorren barruan erabili izan dugun irakurketarako errekurtsio bat azalduko dugu hemen.

ZENBAIT IRAKURGAIREKIKO TRATAMENDUA

Irakurgaiak lantzerakoan orain arteko oztopoak hauetxek izan dira:

a) Globaltasunik eza

— Askotan gertatu eta gertatzen da arazo hau. Ikasleak textu batetan zerbait ulertzen ez duenean, bertan geratzen da maiz aurrera jarraitu gabe, bere ulermen-prozesua elementuz elementu eginez eta ez kateaz katea. Gehienetan ordea, ulertzen ez dituen elementu horietariko asko ulertuko luke, baldin eta textu osoa «esanahi orokor bila» irakurriko balu.

b) Interesik eza

— Normala gertatu ohi da, bestetik, behin eta momentuz ulertuz gero, irakurgai horretaz gehiago ez arduratzea, dena ulertzen baitu.

c) Oroimenik eza

— Puntu hau bigarrenarekin dator loturik, ulertzen duen ikasleak ez du memoria gehiegi behartzen asimilatze horretan eta batez ere, eskaintzen zaizkion irakurgaiak ugariak badira, sakabanatze izugarria gerta daiteke irakurgaien errentagarritasun pedagogikoa oso maila apaletara jaitsiaraziz.